

**Fiskalizazio Txostena**

**Informe de Fiscalización**

**Galdakaoko Udala**

**Ayuntamiento de Galdakao**

**2019**





## AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURDURAK.....	5
I. SARRERA.....	7
II. IRITZIA.....	8
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia .....	8
II.2 Urteko Kontuei buruzko Iritzia .....	9
III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.....	10
III.1 Aurrekontua eta kontabilitatea .....	10
III.2 Diru-sarrerak eta diru-bilketa .....	10
III.3 Langileria.....	11
III.4 Kontratazioa.....	12
III.5 Transferentziak eta dirulaguntzak .....	13
III.6 Beste alderdi batzuk .....	13
IV. FINANTZAREN ANALISIA .....	14
V. URTEKO KONTUAK .....	16
V.1 Udala.....	16
V.2 Erakunde Autonomoak.....	19
ERANSKINAK .....	21
A.1 Fiskalizazio-gai den erakundearen izaera eta ezargarria zaion legeria .....	21
A.2 Aurrekontua eta aldaketak .....	21
A.3 Zergak, tasak eta bestelako sarrerak .....	22
A.4 Transferentziek eta dirulaguntzek eragindako sarrerak .....	23
A.5 Langileen gastuak.....	25
A.6 Ondasun arrunten eta zerbitzuen eta inbertsioen kontratazioa .....	27
A.7 Emandako transferentziak eta dirulaguntza arruntak .....	29
A.8 Aurrekontuko zordunak eta pasibo arrunta .....	30
A.9 Aktibo ez arrunta.....	31
A.10 Erakunde autonomoak .....	32
A.11 Kontratazioaren analisisa .....	34
ALEGAZIOAK .....	37



<b>ABREVIATURAS</b> .....	<b>39</b>
<b>I. INTRODUCCIÓN</b> .....	<b>41</b>
<b>II. OPINIÓN</b> .....	<b>42</b>
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	42
II.2 Opinión sobre las Cuentas Anuales.....	43
<b>III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN</b> .....	<b>44</b>
III.1 Presupuesto y contabilidad .....	44
III.2 Ingresos y recaudación.....	44
III.3 Personal.....	45
III.4 Contratación .....	46
III.5 Transferencias y subvenciones .....	47
III.6 Otros aspectos.....	47
<b>IV. ANÁLISIS FINANCIERO</b> .....	<b>48</b>
<b>V. CUENTAS ANUALES</b> .....	<b>50</b>
V.1 Ayuntamiento.....	50
V.2 Organismos Autónomos .....	53
<b>ANEXOS</b> .....	<b>55</b>
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado y legislación aplicable.....	55
A.2 Presupuesto y sus modificaciones .....	55
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos .....	56
A.4 Ingresos por transferencias, subvenciones y otros ingresos.....	57
A.5 Gastos de personal .....	59
A.6 Compra de bienes corrientes y servicios e inversiones .....	61
A.7 Transferencias y subvenciones corrientes concedidas .....	63
A.8 Deudores presupuestarios y Pasivo corriente.....	64
A.9 Activo no corriente .....	65
A.10 Organismos Autónomos .....	66
A.11 Análisis de contratación.....	68
<b>ALEGACIONES</b> .....	<b>71</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## LABURDURAK

AMAS	Autonomiari eta Mendekotasunari Arreta emateko Sistema.
BAO	Bizkaiko Aldizkari Ofiziala.
BEZ	Balio Erantsiaren gaineko Zerga.
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EAL	Estatuko Aurrekontuei buruzko Legea.
EIOZ	Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zerga.
ETEL	2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
GLL	Gizarte Larrialdietarako Laguntzak.
GODG	Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina.
HABE	Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea.
HILBIZ	Hiri izaerako lursailen balio igoeraren zerga.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
JEZ	Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.
LEI	Lanerako Ezintasun Iragankorra.
LUO	Lurraren Udal Ondarea.
LZ	Lanpostuen zerrenda.
OHZ	Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.
TAOAL	7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen.
Udalkutxa	Udal Finantzaketarako Foru Funtza.





## I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak agindutakoari eta Epaitegiaren Osoko bilkurak onetsitako Lan Programari jarraikiz, Galdakaoko Udalaren 2019ko ekitaldiko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

Fiskalizazio-lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: aurrekontuaren honako atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza-eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta dirulaguntzen emakida. azterketa lan hau fiskalizazio-gai den ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztatzeak egitea eragotzi gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako hauek besarkatzen ditu: Udalaren eta bere 2 erakunde autonomoen balantzea, ekonomiaren eta ondarearen emaitzaren kontua, oroitidazkia eta aurrekontuaren likidazioa.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren efikazia eta efizientziari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa-prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi den ere, fiskalizazioan sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Galdakaoko udalerriak 29.326 biztanle zituen 2019ko urtarrilaren 1ean eta Udalean, udal administrazioak gain, Udal Euskaltegia eta Musika Jardueretarako Zentroa barne hartzen ditu. Gainera, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko kide da, udalerriko ur-horniduraren eta -saneamenduaren kudeatzailea.



## II. IRITZIA

### II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1. Berdeguneak mantentzeko zerbitzuen eta zaborren bilketa pneumatikoaren sistemaren kontratuek, bai eta Torrezabal kultur etxeko ekitaldi- eta erakusketa-aretoen bilketa exekutiboan eta kudeaketan laguntzekoek ere, 1,3 milioi euroren kostua izan zuten guztira 2019an. Horien kontratuak 2017an, 2018an eta 2019ko abuztuan iraungi ziren. Udalak publikotasun- eta lehia-printzipioak urratu ditu, derrigorrezkoa baita lizitazio berri bat abiaraztea (ikus A.11).
2. Udalak publikotasun- eta lehia-printzipioak urratu zituen argiteria publikoaren zerbitzua eta langileen bizitza-asegurua kontratua kontratu txiki modura izapidetzean, prozedura ireki bitartez esleitu beharrean; kontratu horiek 2019an 273.133 euroren kostua eragin zuten (ikus A.11).
3. Kaleak garbitzeko kontratua kudeaketa-kontratu gisa kalifikatu zen, 6 urteko iraupenarekin, eta urteko 2 luzapen baimendu ziren. Gehienez 6 urteko iraupena zuen zerbitzu-kontratu gisa kalifikatu behar zatekeen, eta epe hori 2020ko apirilean lehen luzapena formalizatzean gainditu zen (C akatsa).

Epaitegi honen iritzira, Galdakaoko Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten erakundeek, 1., 2. eta 3. paragrafoetan aipatutako ez-betetzeak alde batera, zuzentasunez bete dute 2019ko ekitaldian ekonomia eta finantzaren jarduera arautzen duen lege araudia.





## II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Hona hemen Galdakaoko Udalaren Gastu Orokorren Diruzaintza Geldikinean eta Ondare Garbian eragina duten doiketak 2019ko abenduaren 31n:

ERANSKINA/KONTZEPTUA	GODG	Euroak milakotan		
		AKTIBOA	ONDAREKOA	
			PASIB.	OND.GARB.
<b>UDALA</b>				
A.3 OHZ eta JEZ sarrerak: kobratzeko dauden 2019ko likidazioak .....	429	429	-	429
A.3 Trafiko arloko zehapenak, erregistratu gabeak .....	95	95	-	95
A.3 Bermea egikaritzeagatiko sarrera: gauzatzeko dauden lanengatiko oblig.....	(122)	-	122	(122)
A.4 Udalaren aldeko 2019ko Udalkutxaren likidazioa, 2020an erregistratua .....	-	163	-	163
A.4 AMASen 2014-2016ko dirulaguntza, 2020 eta 2021ean kobratzekoa.....	171	171	-	171
A.4 GLLren dirulaguntza ordainketa osagarri-kitapenerako .....	70	70	-	70
A.4 Enplegurako Eskualdeko Planari dirulaguntza 2018-19 eta 2019-20.....	170	170	-	170
A.4 LUOren eta oinordetzaren sarr.: ondarean erreg. gabeko finantz. desbid.....	-	-	2.831	(2.831)
A.5 Erretiro aurreratuko sarietarako zuzkidura: epaia jaso zain dauden 3 ebazpen ..	-	-	91	(91)
A.6 2019ko gastuak, 2020ko aurrekontuaren kontura .....	(275)	-	275	(275)
A.6 UR-2egikaritze-unitatea urbanizatzeko kuoten likidazioa .....	(335)	374	709	(335)
A.7 2019ko ekarpena suhiltzaileen foru-zerbitzuari, 2020an erregistratua .....	(209)	-	209	(209)
A.8 Diru-sarreraren itzulketa, aurrekontuan erregistrorik gabe .....	(93)	-	-	-
A.9 Bengoetxe 1 egikaritze unitatea: lursailak eta kobratzeko saldoak erreg. gabe..	-	2.792	-	2.792
A.9 Azpiegituren idazpurua: 2001-10 hobekuntzen amortizazioa .....	-	(10.307)	-	(10.307)
A.9 Kobrantzen aldizkakotzea, udal garaje-plazen emakida kontzeptuan.....	-	-	6.971	(6.971)
<b>GUZTIRA</b>	<b>(99)</b>	<b>(6.043)</b>	<b>11.208</b>	<b>(17.251)</b>
<b>ERAKUNDE AUTONOMOAK</b>				
A.10 Euskaltegia: 2019-20 ikasturteko dirulaguntza: finantzak. desbideratzea.....	63	63	-	63
<b>GUZTIRA</b>	<b>63</b>	<b>63</b>	<b>-</b>	<b>63</b>

Epaitegi honen iritzira, 1. paragrafoan adierazitako salbuespena alde batera, Galdakaoko Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten entitateen kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2019ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta 2019ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, araudian jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



### III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jaso dira ekonomia eta finantza jarduera arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten akatsak ez ezik, baita kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere.

#### III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- 2019ko ekitaldirako aurrekontua Udaltzarak urte bereko otsailaren 28an onetsi zuen; ordea, arautegiak urtea hasi aurretik onestea behin betiko aurreikusten du.
- Udalaren kontuek gastu arrunteko kapituluetan 1,5 milioi euroren konprometitutako kredituak daudela erakusten dute eta horietatik 282.487 euro esleitutako kredituei dagozkien, eta gainerakoa, berriz, egikaritzako soberakinei. Inbertsio-konpromisoei dagokienez, ez dira jaso Ibaizabal ibaia bideratzeko 2019an sinatutako hitzarmenak sortutakoak, 2020ko aurrekontuan 227.000 euroren zenbatekoarekin zenbatetsi zirenak.
- Memoriak jakinarazi beharko luke sortzapenez bestelako irizpideak aplikatzeak eragindako ondorioa BBUPk bildutako zaborren eta estolderiaren tasetan. Era berean, udal hornidura-sarea hobetzeko obrak egiteko hartutako konpromisoaren berri ere eman beharko luke, Partzuergoak txosten hau idatzi dugun datan zehaztu ez duen zenbatekoan.
- 2018ko urtarrilean hornidura-zerbitzua BBUPri eskualdatu zionean, Udalak kontsumitutako uraren ordainetan zerbitzuaren ohiko tasa ordaindu zuen. Zenbateko horrez gain, Partzuergoak zerbitzua emateko erabilitako araztegi baten eta udal-presa baten mantentze-gastuak jasanarazi zizkion Instalazio horien egoera ez zen arautu zerbitzua transferitzeko hitzarmenean; erakunde bakoitzak finantzatu beharreko kostuak adostu behar zituzketen bi erakundeek.
- Lurraren Udal Ondarearen baliabideak osagai garrantzitsu dira helburudun diru-sarreraren eraginpeko Geldikinean eta 2019ko abenduaren 31n 2,6 milioi euro egin dituzte. Komeniko litzateke bereiztea diru-sarrera horiek sortutako desbideratzeak eta epe mugatuetan obra zehatzak egitea eskatzen duten helburudun diru-sarrerek sortutakoak.
- Zerbitzu publikoei atxikitako elementuak sartu direla azalerratu da LUOko ibilgetuaren eta ondasun higiezinak inbertsioen kontuetan.

#### III.2 DIRU-SARRERAK ETA DIRU-BILKETA

- Alkateak ez zituen onartu zabor-bilketa eta estolderia tasen likidazioak.
- Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga atzerapenarekin likidatu zen 2019an, eta urte horretako diru-sarreraren % 82 aurreko urteetako eskualdaketei dagokie.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

- Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak zabor tasaren diru-bilketa zerbitzua ematen du, 2019an 46.608 euroren kostua izan duena; horren baldintzak dagozkion hitzarmenean arautu behar lirateke.
- BFArekin OHZaren kudeaketa eskuordetzeko izenpetutako hitzarmenak urteroko luzapenak aurreikusten ditu; udalbatzak, baina, ez du halakorik 1995az geroztik onartu.

### III.3 LANGILERIA

- Udalak ez zuen argitaratu 2008ko Udalbatzaren erabakia, 2019an indarrean zeuden funtzionarioen eta lan-kontratuko langileen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa eta hitzarmen kolektiboa onartu zituena. Halaber, ez zitzaion publikotasunik eman 2019ko ordainsari igoera onartu zuen erabakiari.
- 2019an Udaleko Osoko Bilkurak erabaki zuen langile guztiei beren ordainsarien % 0,3ko produktibitate-osagarria ordaintzea, Gardentasunaren eta Administrazio Elektronikoaren Planari egindako ekarpenagatik. Udalak eta bi erakunde autonomoek, hurrenez hurren, 19.515 eta 3.627 euro ordaindu zituzten kontzeptu honen izenean. Produktibitate-osagarria langile bakoitzak bere lanpostuari atxikitako egitekoak betetzean erakutsitako aparteko etekin, interes edo ekimena saritzeko erabili behar da.
- 2019an indarrean zegoen LZk jasotzen du 5 lanpostu dedikazio berezikoak zirela, horien zenbatekoa zehaztu gabe; 2019an ordainsarien % 10 eta % 15 egin zuen. Halaber, ez ziren behin-behineko langileen hiru lanpostuen ordainsariak adierazi.
- 2019an, 39 udaltzaini hileko zenbateko finakoak ordaindu zitzaizkien arriskugarritasun-plus gisa, 194.964 euro guztira, eta egokiagoa izango litzateke lanpostuaren berariazko osagarriari gehitzea.
- Aldi baterako ezintasunagatik osagarriaren kalkuluak barnean hartzen ditu gaueko lanagatik eta jaiegunetako orduengatik aparteko haborokinei dagozkien zenbatekoak; ordea, araudiak ordainsari finakoak soilik hartu behar direla kontuan zehazten du.
- 2019ko abenduaren 31n indarrean zeuden programako behin-behineko funtzionarioen 6 izendapen, araudiak agintzen duen 3 urteko epe gaindiko iraupenekoak.
- Udalak ez du absentismoa murrizteko planik onartu, eta ez du absentismoari buruzko estatistikarik argitaratu, arrazoiak zehaztuz.
- Administrari laguntzaileen lan-poltsa 2005ean eratu zen, eta administrariena eta brigadako langileena agortuta daude.
- Udalak ez dizkio Bizkaiko Foru Ogasunari aitortzen langileei ordaintzen dizkien gauzako ordainsariak, batik bat bitzitza aseguruak, 2019an 54.374 euro egin dutenak.
- Musika Jardueren Zentroak osagarriak ordaindu zituzkien 3 irakasleri, aurrekontuko langileen eranskinean aurreikusitako kudeaketa-erantzukizunak betetzeagatik, LPZn sartu gabe zeudenak.



### III.4 KONTRATAZIOA

Fiskalizazio-gai izan den urtean indarrean zeuden 7 kontratu nagusiak aztertu ondoren -30,3 milioi euroren esleipenei dagozkienak- honako alderdi hauek azalerratu zaizkigu (ikus A.11):

- Guztira 17,5 milioi euroan esleitutako 3 kontratutan (1, 4 eta 6 espedienteak) esleipen-irizpide orokorrak baliatu ziren, balioztatuko ziren alderdiak eta baloraziorako aplikatu beharreko sistema zehaztu gabe (A1 akatsa).
- Guztira 17 milioi euroan esleitutako 3 kontratutan (1, 3 eta 5 espedienteak), ez ziren % 10etik eta % 12tik gorako prezioen hobekuntzak baloratzen (A2 akatsa)-
- 25,6 milioi euroko 6 kontraturen esleipena (1, 2 eta 4tik 7ra bitarteko espedienteak) 1 eta 11 hilabete artean atzeratu zen araudiak aurreikusitako 2 hilabeteen aldean (B1 akatsa).
- Udal aretoak garbitzeko kontratuaren esleipendunari eskatutako bermea kalkulatzeko, zerbitzuaren urteko kostua hartu zen kontuan, esleipenaren guztizko zenbatekoa hartu beharrean, 4,2 milioi euro (C akatsa).
- Kaleak konpontzeko zerbitzua eta obren esparru-kontratua esleitzeko, enpresa-ziurtagiriak edukitzea baloratu zen; kaudimen-irizpide hori baldintza gisa eska daiteke, baina ez esleipen-irizpide gisa. Gainera, beren kaudimena egiaztatzeko, lizitatuzaileek beren sailkapena aurkeztu behar zuten, eta baldintza hori ezin zen eskatu zerbitzu-kontratuetan (C akatsa).
- Zaborra biltzeko kontratua 2,5 milioi euroan esleitu zen, eta aukerako prestazioak jasotzen zituen (atez ateko bilketa partzialki ezartzea eta edukiontzietan txipak instalatzea); prestazio horiek kontratazio-organoak gerora hartuko zuen erabaki baten mende zeuden. Ordea, araudiaren arabera, kontratuaren xedea mugatuta egon behar da, eta ez da onartzen kontratazio-organoaren ondorengo erabakien baldintzapeko prestaziorik (C akatsa).

#### Alderdi orokorrak

- 4 kontratutan proportzionaltasun sinpleko formula bat baliatu zen, zeinak murriztu egiten baitzuen faktore honen egiazko balioa, lizitazio prezioa berdintzen zuten eskaintzei puntuak emanez.

#### Beste erosketa batzuk

- 186.117 euroren kostua izan zuten 7 kontratu erosketa txiki modura izapidetu ziren, prozedura ireki sinplifikatu laburtuaren bidez izapidetu beharrean (ikus A.11).



### III.5 TRANSFERENTZIAK ETA DIRULAGUNTZAK

- 144.275 euroren 3 dirulaguntza izendunen justifikazioan, aurkeztutako frogagirik dirulaguntzaren zenbatekoa gainditzen badute ere, aurkeztutako diru-sarreraren eta gastuen zerrendak ez zituen jasotzen diruz lagundutako jarduerak sortutako gastu guztiak; beraz, ezin da zehaztu dirulaguntzaren emaitza ekonomikoa. 3 kasuetan, dagokion elkar-tearen urteko jarduera finantzatzen zen; beraz, komenigarria litzateke urteko kontuen araberako justifikazioaren modalitatea erabiltzeko aukera aztertzea, justifikazio-kontuarena erabili beharrean.
- 4. kapituluko lau aurrekontu-partidak laguntzen eta dirulaguntza izendunen deialdietarako diru-izendapenak biltzen zituzten. Azken horiek, dagokion aurrekontu-eranskinean zehazten diren arren, gastuen egoera-orrian banan-banan zehaztu behar dira.

### III.6 BESTE ALDERDI BATZUK

- Ordainketa epeen gaineko hiruhileko txostenek erakusten dute Udalak 2019an egindako ordainketen % 22,5ek gainditu egin zuela zehaztutako epea (30 egun onartu zirenetik).



#### IV. FINANTZAREN ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan eta fiskalizazio-gai izan den urtean kitatutako magnitude nagusien bilakaera segidako taulan dago zehaztua:

##### FINANTZAREN ANALISIA

	Euroak milakotan			Euroak biztanleko		
	Urtea			Urtea		
	2017(*)	2018(*)	2019	2017	2018	2019
Zerga zuzenak, zeharkakoak, tasak eta best. sarr. (1, 2 eta 3 kap.) ...	15.470	14.672	14.296	527	501	487
Transferentzia eta dirulaguntza arruntak (4. kap.) .....	17.520	19.845	22.196	597	677	757
Ondare sarrerak (5. kap.) .....	63	16	55	2	1	2
<b>A. Sarrera arruntak .....</b>	<b>33.053</b>	<b>34.533</b>	<b>36.547</b>	<b>1.126</b>	<b>1.179</b>	<b>1.246</b>
Langileria gastuak (1. kap.) .....	8.435	8.918	8.922	287	304	304
Ondasun arrunten erosketa eta zerbitzuak (2. kap.) .....	15.722	14.523	13.993	536	496	477
Transferentzia eta dirulaguntza arruntak (4. kap.) .....	3.344	3.278	3.818	114	112	130
<b>B. Funtzionamendu-gastuak .....</b>	<b>27.501</b>	<b>26.719</b>	<b>26.733</b>	<b>937</b>	<b>912</b>	<b>911</b>
<b>Aurrezki gordina (A-B) .....</b>	<b>5.552</b>	<b>7.814</b>	<b>9.814</b>	<b>189</b>	<b>267</b>	<b>335</b>
Finantza gastuak (3. kap.) .....	(1)	(1)	(1)	-	-	-
<b>Emaitza arrunta .....</b>	<b>5.551</b>	<b>7.813</b>	<b>9.813</b>	<b>189</b>	<b>267</b>	<b>335</b>
- Maileguen amortizazioa (9. kap.) .....	-	-	-	-	-	-
<b>Aurrezki garbia .....</b>	<b>5.551</b>	<b>7.813</b>	<b>9.813</b>	<b>189</b>	<b>267</b>	<b>335</b>
Inbertsio errealen besterentzea (6. kap.) .....	225	712	1.891	8	24	64
Jasotako kapital transferentziak eta dirulaguntzak (7. kap.) .....	75	87	197	2	3	7
- Inbertsio errealak (6. kap.) .....	(2.263)	(2.549)	(2.951)	(77)	(87)	(101)
Kapitalezko eragiketen emaitza .....	(1.963)	(1.750)	(863)	(67)	(60)	(30)
Eragik. ez finantzarioaren emaitza (1etik 7rako kap.) .....	3.588	6.063	8.950	122	207	305
Diruzaintza geldikina .....	25.843	31.870	40.008	881	1.088	1.364
Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina .....	22.521	28.234	35.229	768	964	1.201
Zorpetzea 12.31n .....	-	-	-	-	-	-

(\*) HKEEk fiskalizatu gabeko datuak.

**Sarrera arruntak:** % 10,6 egin dute gora 2017ko urtearen aldean.

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak:** 2018an hornidura-tasa BBUPra eskualdatu izanaren ondorioz egin dute behera atal honetako sarrerak, % 7,6 hain zuzen ere.
- **Transferentziak eta dirulaguntzak:** % 24,1 egin dute gora osagai nagusi den Udalkutxak % 25,6 gora egin duelako.

**Funtzionamendu-gastuak:** % 2,8 egin dute behera 2017 eta 2019 bitartean, honako xehakapenarekin:

- **Langile-gastuek** % 5,8 egin dute gora, 2018ko eta 2019ko soldata igoeren ondorioz, % 1,75 eta % 2,8, eta aldi baterako lan-kontratupeko langile gehiago kontratatu izanaren ondorioz. Gizarte Segurantzako kotizazioek % 16,4 egin dute gora, gehieneko kotizazio-



oinarriak igo izanaren ondorioz eta 2019ko urtarrilaz geroztik udaltzaingoari % 8,84ko gainkargua ezarri izanaren ondorioz.

- Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketak % 11 murriztu ziren, aipatutako ur-hornidura zerbitzua eskualdatu izanaren ondorioz.
- Transferentziak eta dirulaguntzak % 14,2 gehitu dira eta azpimarratzekoa da enplegua eta kultur jarduerak sustatzeko irabazi asmorik gabeko erakundeei emandako laguntzek izan duten bariazioa.

**Aurrezki gordina, garbia eta zorpetzea:** Zorpetzerik ez izateak berdindu egin ditu aurrezki gordina eta garbia; horiek 2019an 9,8 milioi euro egin zuten, sarrera arrunten gainean % 26,9. Aztertutako aldian bilakaera positiboa izan du eta hobetu egin du hirurtekoaren hasierako urtean izan zuen % 16,8ko indizearen aldean.

**Kapital-eragiketen emaitza:** Hirurtekoan egindako inbertsioak 7,8 milioi eurorenak izan dira, sarrera arrunten % 7,5 eta hirigintzako diru-sarrera bidez finantzatu dira % 36,4an.

**Gastu Orokorretarako Diruzaintza geldikina:** % 12,7 egin du gora 2017ko abenduaren 31n zegoenak, izan ere 2017an eta 2018an sortutako aurrezki garbiak kapitalezko eragiketen emaitza gainditu du. 2019ko abenduaren 31n Diruzaintza geldikina 35,2 milioi euro zen, ekitaldi horretako sarrera arrunten % 96.

**Ondorioa:** Zerga itunduen finantzaketaren gehikuntzek eta beste aldaketa batzuek eragiketa arrunten egitura hobetu dute, eta sortutako aurrezki-maila handitu. Hirurtekoan geldikinak handiak izan dira eta aztertutako aldian egindako inbertsioak nasaiki gainditu dituzte. Aurreikuspenen arabera, aurrezpen mailak behera egingo du 2020an, baina Udalaren egoera onberari esker, litekeena da 2020an sortutako krisiaren ondorioak arintzea. COVID 19aren ondorioz, 2020ko kontuetan aurreikusitako ondorio nagusia Udalkutxaren diru-sarrerak 1,8 milioi euro murriztea da.

**Aurrekontu-egonkortasuna:** Udaleko Kontu-hartzaitzaren txostenak egiaztatu zuen likidazioari dagokionez aurrekontuaren egonkortasunari buruzko araudia bete zela, eragiketa ez-finantzarioetan superabita lortu zelako, zorpetzerik behar izan ez zelako eta gastu konputagarria % 6,2 murriztu zelako 2018koaren aldean.

**V. URTEKO KONTUAK****V.1 UDALA**

## 2019KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUBIDE KITAT.	KOBRA. KOBRA.	KOBRA. GABEA	% EXEK.
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.				
1. Zerga zuzenak .....	A.3	9.935	-	9.935	10.043	9.426	617	% 101
2. Zeharkako zergak .....	A.3	500	-	500	558	527	31	% 112
3. Tasak eta bestelako sarrerak .....	A.3	3.526	-	3.526	3.695	3.503	192	% 105
4. Transferentzia arruntak .....	A.4	21.145	-	21.145	22.196	21.654	542	% 105
5. Ondare-sarrerak .....	-	55	-	55	55	44	11	% 100
6. Inbertsio errealen besterentzea .....	A.4	1.805	-	1.805	1.891	1.268	623	% 105
7. Kapitalezko transferentziak .....	A.4	129	-	129	197	64	133	% 153
8. Aktibo finantzarioak .....	-	80	5.393	5.473	16	3	13	(*)% 20
<b>DIRU-SARRERAK GUZTIRA</b>		<b>37.175</b>	<b>5.393</b>	<b>42.568</b>	<b>38.651</b>	<b>36.489</b>	<b>2.162 (*)</b>	<b>% 104</b>

(\*) Exekuzioaren % kalkulaterakoan Diruzaintza-geldikin bidez finantzatzearen eragina zuzendu da.

Euroak milakotan

GASTUAK	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG. AITORT.	ORDAINK. ORDAINK.	ORDAIN. GABE	% EXEK.
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.				
1 Langileria-gastuak .....	A.5	10.175	-	10.175	8.922	8.722	200	% 88
2. Ondasun arrunt eta zerbitz. kontrat. ...	A.6	16.784	402	17.186	13.993	12.553	1.440	% 81
3. Gastu finantzarioak .....	-	1	-	1	1	1	-	% 100
4. Transferentzia arruntak .....	A.7	3.800	435	4.235	3.818	3.194	624	% 90
6. Inbertsio errealak .....	A.6	6.335	4.556	10.891	2.951	1.942	1.009	% 27
8. Aktibo finantzarioak .....	-	80	-	80	16	16	-	% 20
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>		<b>37.175</b>	<b>5.393</b>	<b>42.568</b>	<b>29.701</b>	<b>26.428</b>	<b>3.273</b>	<b>% 70</b>
<b>SARRERAK - GASTUAK</b>					<b>8.950</b>			

## AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	ERANSK.	HASIER.	KOBRA./		AZKEN
		ZORRA	BALIOG.	ORDAIN.	
Kobratzeko dauden saldoak .....	A.8	3.541	(929)	816	1.796
Ordaintzeko dauden saldoak .....		4.605	-	4.557	48
<b>AURREKONTU ITXIEN EMAITZA</b>			<b>(929)</b>		





Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

AURREKONTUAREN EMAITZA	Euroak milakotan
Eskubide kitatuak.....	38.651
Obligazio aitortuak.....	29.701
<b>INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA</b>	<b>8.950</b>
<b>AURREKO EKITALDIETAKO KITATUTAKO AURREK. ERAGIKETEN EMAITZA</b>	<b>(929)</b>
<b>EKITALDIAREN AURREKONTUKO EMAITZA</b>	<b>8.021</b>
Finantzaketako desbideratzeak.....	(212)
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak.....	3.365
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA</b>	<b>11.174</b>

DIRUZAINZA GELDIKINA	Euroak milakotan
Diruzaintza geldikin likidoa 19.1.1ean.....	31.870
Ekitaldiaren aurrekontuko emaitza.....	8.021
Fidantzen eta aurrekontuz kanpoko saldoen erregularizazioa.....	117
<b>DIRUZAINZA-GELDIKINA 19.12.31-N</b>	<b>40.008</b>
Diruzaintzako funts likidoak.....	40.636
Sarreraren aurrekontuko zordunak.....	3.958
Aurrekontuz kanpoko zordunak.....	101
Gastu-aurrekontuaren hartzekodunak.....	(3.321)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak.....	(1.147)
Aplikatzeko dauden partidak.....	(219)
<b>DIRUZAINZA GELDIKINA 19.12.31n</b>	<b>40.008</b>
Zalantzako kobragarritasuneko saldoak.....	(1.948)
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako Diruzaintza-geldikina.....	(2.831)
<b>GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA-GELDIKINA 19.12.31N</b>	<b>35.229</b>
<b>ZORPETZEA 19.12.31n</b>	<b>-</b>

KONPROMISO-KREDITUAK	Euroak milakotan			
	HASIERAKO AURREK.	ALDA- KETA	AZKEN AURREK.	HITZAR- TUA
Kultur etxe berria-antenna (2020 eta 2021).....	4.884	-	4.884	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>4.884</b>	<b>-</b>	<b>4.884</b>	<b>-</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

BALANTZEAK 2019 ETA 2018KO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

AKTIBOA	ERANSK.	2019	2018	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	ERANSK.	2019	2018
AKTIBO EZ ARRUNTA		164.128	163.251	ONDARE GARBIA		202.094	192.995
lbilgetu ukiezina.....	A.9	419	431	Ondarea .....		87.612	87.614
lbilgetu materiala .....	A.9	133.233	133.062	Aurreko ekitaldietako emaitzak.....		104.218	99.022
lbilgetuko inbertsioak.....	A.9	17.827	17.076	Ekitaldiko emaitza.....		9.843	6.094
Lurraren ondare publikoa.....	A.9	12.648	12.681	Jasotako dirulag., egozteko daudenak .....		421	265
Epe luz. finantza inbertsioak .....	A.9	1	1				
AKTIBO ARRUNTA		42.775	35.860	PASIBO ARRUNTA		4.809	6.116
Zord. eta kobr. bst knt b. ....	A.8	1.200	731	Epe motzeko zorrak .....	A.8	1.649	1.507
Epe motz. finantza inbertsioak ....	A.8	939	887	Hartzek. eta ordaintz. bst kontu batz. ..	A.8	3.160	4.609
Eskud. eta bst. akt. lik. baliok.....		40.636	34.242				
<b>GUZTIRA</b>		<b>206.903</b>	<b>199.111</b>	<b>GUZTIRA</b>		<b>206.903</b>	<b>199.111</b>

ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA 2019 ETA 2018

Euroak milakotan

	2019	2018
Zergak .....	10.625	10.672
Tasak .....	2.939	3.465
Hirigintzako sarrerak .....	1.891	712
Jasotako transf. eta dirulaguntzak .....	22.211	19.872
Salmentak eta zerbitzuen prestazioa .....	112	120
Kudeaketa arrunteko beste sarrera b.....	517	285
<b>KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>38.295</b>	<b>35.126</b>
Langileen gastuak .....	(9.044)	(9.072)
Transferentziak eta emandako dirulaguntzak .....	(3.818)	(3.278)
Kudeaketa arrunteko beste gastu b.....	(13.890)	(14.356)
lbilgetua amortizatzea .....	(2.056)	(2.037)
<b>KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>(28.808)</b>	<b>(28.743)</b>
<b>KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)</b>	<b>9.487</b>	<b>6.383</b>
Arruntak ez diren beste partida batzuk.....	189	54
<b>ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK</b>	<b>9.676</b>	<b>6.437</b>
Sarrera finantzarioak .....	88	73
Gastu finantzarioak .....	(1)	(1)
Balioaren narriadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentzeak .....	80	(415)
<b>ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZAK</b>	<b>167</b>	<b>(343)</b>
<b>EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)</b>	<b>9.843</b>	<b>6.094</b>



## V.2 ERAKUNDE AUTONOMOAK

### 2019KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

DIRU-SARRERAK	ERANSKINA	MUSIKA		EUSKALTEGIA	
		Has.aurr.	Diru-sarrerak	Has.aurr.	Diru-sarrerak
3.- Tasak eta bestelako sarrerak .....	A.10	312	282	67	74
4.- Transferentzia arruntak .....	A.10	1.042	846	676	503
8.-Aktibo finantzarioak .....	-	10	8	15	-
<b>GUZTIRA</b>		<b>1.364</b>	<b>1.136</b>	<b>758</b>	<b>577</b>

GASTUAK	ERANSKINA	MUSIKA		EUSKALTEGIA	
		Has.aurr.	Gastuak	Has.aurr.	Gastuak
1.- Langileria-gastuak.....	A.10	1.150	1.122	645	625
2.- Ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioa .....	-	183	99	83	55
4.- Transferentzia arruntak.....	-	21	8	15	12
8.-Aktibo finantzarioak .....	-	10	8	15	-
<b>GUZTIRA</b>		<b>1.364</b>	<b>1.237</b>	<b>758</b>	<b>692</b>
<b>SARRERAK - GASTUAK</b>		<b>(101)</b>	<b>(115)</b>		

### AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	MUSIKA	EUSKALTEGIA
<b>ZORDUNAK</b>		
Hasierako zorra .....	224	-
Kobran.....	(217)	-
Amaierako zorra .....	7	-
<b>HARTZEKODUNAK</b>		
Hasierako zorra .....	72	28
Ordainketa .....	(70)	(28)
Amaierako zorra .....	2	-

### AURREKONTUAREN EMAITZA

Euroak milakotan

	MUSIKA	EUSKALTEGIA
Eskubide kitatuak.....	1.136	577
Obligazio aitortuak.....	1.237	692
<b>INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA</b>	<b>(101)</b>	<b>(115)</b>
<b>AURREKO EKITALDIETAKO ERAGIKETEN EMAITZA</b>	<b>-</b>	<b>-</b>
<b>EKITALDIAREN AURREKONTUKO EMAITZA</b>	<b>(101)</b>	<b>(115)</b>
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak.....	70	-
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA</b>	<b>(31)</b>	<b>(115)</b>



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

DIRUZAINNTZA GELDIKINA	Euroak milakotan	
	MUSIKA	EUSKALTEGIA
Diruzaintzako funts likidoak .....	221	512
Sarrereren aurrekontuko zordunak .....	15	-
Aurrekontuz kanpoko zordunak .....	6	-
Gastu-aurrekontuaren hartzekodunak .....	(66)	(34)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak .....	(46)	(24)
<b>DIRUZAINNTZA GELDIKINA 19.12.31n</b>	<b>130</b>	<b>454</b>
Zalantzako kobragarritasuneko saldoak .....	(7)	-
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako diruzaintza-geldikina .....	-	-
<b>GODG 19/12/31N</b>	<b>123</b>	<b>454</b>

BALANTZEA 2019KO ABENDUAREN 31N	Euroak milakotan	
	MUSIKA	EUSKALTEGIA
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA</b>	<b>1.082</b>	<b>596</b>
Ibilgetu ukiezina .....	-	(2)
Ibilgetu materiala .....	1.082	598
<b>AKTIBO ARRUNTA</b>	<b>235</b>	<b>512</b>
Aurrekontuko zordunak .....	8	-
Entitate publiko zordunak .....	6	-
Diruzaintza .....	221	512
<b>AKTIBOA</b>	<b>1.317</b>	<b>1.108</b>
<b>ONDARE GARBIA</b>	<b>1.205</b>	<b>1.050</b>
Ondarea .....	122	126
Aurreko ekitaldietako emaitzak .....	1.016	1.074
Ekitaldiko emaitza .....	67	(150)
<b>PASIBO ARRUNTA</b>	<b>112</b>	<b>58</b>
Aurrekontuko hartzekodunak .....	66	34
Erakunde publiko hartzekodunak .....	46	24
<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA</b>	<b>1.317</b>	<b>1.108</b>

2019KO EKONOMIA-ONDAREAREN EMAITZAREN KONTUA	Euroak milakotan	
	MUSIKA	EUSKALTEGIA
Jasotako transf. eta dirulaguntzak .....	1.062	503
Salmentak eta zerbitzuen prestazioa .....	283	74
<b>KUDEAK. ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>1.345</b>	<b>577</b>
Langileen gastuak .....	(1.123)	(625)
Transferentziak eta emandako dirulaguntzak .....	(8)	(13)
Kudeaketa arrunteko beste gastu b. ....	(99)	(54)
Ibilgetua amortizatzea .....	(47)	(36)
<b>KUDEAK. ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>(1.277)</b>	<b>(728)</b>
<b>KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA</b>	<b>68</b>	<b>(151)</b>
<b>ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK</b>	<b>68</b>	<b>(151)</b>
<b>FINANTZA ERAGIKETEN EMAITZA</b>	<b>(1)</b>	<b>(1)</b>
<b>EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA</b>	<b>67</b>	<b>(150)</b>

## ERANSKINAK

### A.1 FISKALIZAZIO-GAI DEN ERAKUNDEAREN IZAERA ETA EZARGARRIA ZAION LEGERIA

Galdakaoko Udala Administrazioiko toki entitatea da, oinarritzko ezaugarrietan Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak eta 2/2026 Legeak, Euskadiko Toki Entitateei buruzkoak, arautzen dutena.

Arautegi horrek udalek ematen dituzten eskumenak edo zerbitzu publikoak definitzen dituzte, besteak beste: segurtasuna, garbiketa-zerbitzua, suteak itzaltzeko zerbitzua, ur-hornidura, saneamendu-sarea, argiteria publikoa, hirigintza-diziplina, kultura- eta kirol-jarduerak.

Zerbitzu hauek nagusiki honako hauen bidez finantzatzen dira: zerga, tasa eta prezio publikoak, zerga itunduetan parte-hartzeagatik sarrerak, ondare-sarrerak, dirulaguntzak eta kreditu-eragiketak.

Ekitaldian ezargarria den aurrekontuko eta kontularitzako araudi nagusia 10/2003 Foru Arauak jasotzen du, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Toki Entitateen Aurrekontuei buruzkoak, eta 139/2015 Foru Dekretuak, Bizkaiko toki entitateen kontularitzako araudi-esparrua onartzen duenak.

### A.2 AURREKONTUA ETA ALDAKETAK

2019ko ekitaldirako aurrekontu orokorra 2019ko otsailaren 28ko Osoko bilkurak onetsi zuen hasiera batean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2019ko apirilaren 5ean eman zen argitara.

Hona hemen, 2019ko aurrekontu-aldaketak kapituluka xehakaturik:

KAPITULUAK	Euroak milakotan		
	Kreditu txertaketa	Kreditu gehigarria	GUZTIRA
8. Aktibo finantzarioen bariazioa: Geldikina.....	3.684	1.709	5.393
<b>DIRU-SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>3.684</b>	<b>1.709</b>	<b>5.393</b>
2. Ondasun arrunten eta zerbitz. kontratazioa .....	198	204	402
4. Transferentzia arruntak.....	11	424	435
6. Inbertsio errealak.....	3.475	1.081	4.556
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>3.684</b>	<b>1.709</b>	<b>5.393</b>

Onartutako 7 aldaketa-espeditentek gastuen hasierako aurrekontua % 14,51 gehitu dute.

2019ko ekitaldiko Aurrekontuaren likidazioa 2020ko martxoaren 27ko Alkatetzaren Dekretu bidez onartu zen eta Kontu Orokorra 2020ko uztailaren 30eko Udalbatza bitartez.

### A.3 ZERGA, TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Hona hemen Likidazioaren lehenengo 3 kapituluaren sarrerak:

	Euroak milakotan
<b>KONTZEPTUA</b>	<b>Sarrera</b>
Ondasun higiezinaren gaineko zerga .....	6.313
Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga.....	1.967
Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga .....	1.485
Hiri izaerako lursailen balioaren gaineko zergaren igoera.....	278
<b>ZERGA ZUZENAK GUZTIRA</b>	<b>10.043</b>
Eraikuntzen, instalakuntzen eta obren gaineko zerga .....	558
<b>ZEHARKAKO ZERGA GUZTIRA</b>	<b>558</b>
Zabor-bilketa.....	1.043
Estolderia .....	242
Kiroldegiko abonua, kirol ikastaroak eta kirol aretoen alokairua.....	711
Etzerako laguntza zerbitzua.....	125
Torrezabal Kultur Etxea zerbitzuak eta beste kultur zerbitzu batzuk .....	149
Hirigintzako eta establezimenduak irekitzeko lizentziak .....	154
Jabetza publikoa okupatzeagatik tasa (aldamioak, terrazak, ibiak, azokak etab.).....	169
Ecoembalajes España, SAREN dirusarrerak, papera, kartoia eta bilgarriak birziklatzeag.....	76
Enpresa hornitzaileek lurra, lur azpia eta hegala okupatzea .....	314
Telefonia enpresak .....	98
Dirulaguntzen itzulketak eta beste txikiago batzuk .....	68
Trafiko isunak, hirigintza, etab.....	235
Premiamendu eta berandutza interesen errekarguak .....	88
CR-10 egikaritze-unitatean aparkalekuko obra-kontratuaren bermea egikaritzea.....	122
Bestelako sarrera txikiagoak .....	101
<b>TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>3.695</b>
<b>1, 2 eta 3 KAPITULUAK GUZTIRA</b>	<b>14.296</b>

Udalak kutxa irizpidea aplikatu zuen OHZ, JEZ eta zabor-bilketa eta estolderia tasen diru-sarrerak aitortzean, ekitaldi horretako kobrantza-errolak aitortu beharrean:

- BFAk OHZ eta JEZ kudeatu eta kobratzen ditu, konturako entregak eta urteko likidazioak eginez; Udalak BFAtik jasotako kopuruak erregistratzen ditu, 2020an egindako likidazioa barne. Ekitaldia ixtean, zerga bietatik kobratzeke zeuden ordainagiriak 1,3 milioi eurokoak ziren, eta horietatik 429.049 euro 2019ko likidazioei dagozkie.
- Zabor bilketaren eta estolderiaren tasak BBUPk biltzen ditu, eta Udalarik likidatzen dizkion zenbatekoak Udalak erregistratu egiten ditu. Lehenengo kasuan, tarifa finkoa da, eta hiruhileko natural bakoitzeko lehen egunean sortzen da; bigarren, aldi, aldatu egiten da uraren kontsumoen arabera. 2019ko hirugarren eta laugarren hiruhilekoetako likidazioak 2020ko otsailean eta maiatzean jakinarazi zitzaizkion Udalarik, hurrenez hurren, eta 2020ko diru-sarrera gisa onartu ziren. Bigarren seihilekoko kobrantzak eta 2019ko kobratzeko zeuden ordainagirik bi tasei zegokienez guztira 725.948 euro egin zuten.



Udalak 2018an Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoari ur-horniduraren kudeaketa osoa laga zion eta Udalak Partzuergoko eskualdeko kolektoreekin bat egiten duen estolderia-sareari eutsi zion. 2028ra arte sinatutako hitzarmenak aurreikusten zuen Partzuergoak kudeatuko zuela zerbitzua finantzatzen duen hornidura-tasa. Gainera, Udalak inbertsioak egin behar ditu bigarren mailako sarean, txosten honen datan zehaztu gabe dagoen zenbatekoarekin.

Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga atzerapenarekin likidatu zen 2019an, eta urte horretako diru-sarreraren % 82 aurreko urteetako eskualdaketei dagokie. Hori dela eta, 2020an 376.109 euroren diru-sarrerak aitortu dira, 2019ko abenduaren 31 baino lehenagoko eskualdaketen ondorioz.

Udalak trafiko-zehapenengatiko diru-sarrerak kobratzen direnean edo premiatzen direnean aitortzen ditu.

En 2019an, Udalak 122.475 euroren akatsak zituen obra baten bermea egikaritu zuen. Akatsak 2020an konpondu ziren, ekitaldi horretako aurrekontuaren kontura.

#### A.4 TRANSFERENTZIEK ETA DIRULAGUNTZEK ERAGINDAKO SARRERAK

Hauek dira transferentzia arruntek eta kapitalezko transferentziek eragindako sarreraren xehetasunak:

Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	Zenbatekoa
<b>BIZKAIKO FORU ALDUNDIA</b>	
Udalkutxa-zerga itunduetan partaidetza: 2018ko likidazioa.....	1.122
Udalkutxa-zerga itunduetan partaidetza:2019ko aurrerakinak.....	19.080
Udalkutxa-zerga itunduetan partaidetza: 2019ko aurrelikidazioa (2019ko azaroa).....	422
Gizartekutxa eta AMAS: oinarritzko gizarte zerbitzuak eta etxez etxeko laguntza .....	653
Gizarte Zerbitzuen Karteraren aparteko funtsa .....	120
Euskararen erabilera, enplegua, ekintzailtza, ikuskizun eszenikoak eta beste sustatzea ....	125
<b>EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA</b>	
2019ko GLL eta 2018ko osagarria .....	300
Lanbide-Eskualdeko Enplegu Plana 2017-18 eta 2019-20: langabetuak kontratatzea .....	190
Enplegu-orientazioa, enplegu-zentroak, merkataritza eta beste txikiago batzuk .....	134
<b>BESTELAKOAK</b>	
Estatua: itundu gabeko zergak, genero-indarkeria eta beste txikiago batzuk .....	50
<b>4. KAPITULUA GUZTIRA</b>	<b>22.196</b>
EAE: Egiako eskolako estalkia.....	134
BFA (edukiontzi organikoa) eta BBUP (hornidura-sarea) .....	63
<b>7. KAPITULUA GUZTIRA</b>	<b>197</b>

Udalak itundutako zergetan (Udalkutxa) parte hartzeagatiko aurrerakinak 2020ko otsailean likidatu ziren, eta Udalaren aldeko saldoa 585.116 euro izan zen. Udalak 2019ko diru-sarrera gisa aitortu zuen urte horretako urrian egindako likidazioaren aurreikuspena, azkenean onartutakoa baino 162.770 euro txikiagoa. COVID 19a dela eta, BFAk 2020ko maiatzean erabaki zuen ordainketa atzeratzea, Udalkutxa 2020ren likidazioarekin batera 2021aren hasieran ordaintzeko.



BFAk SAADen kontzeptuan egindako ordainketak mendekotasuna artatzeko transferitutako eskumenengatik Estatuari ordaindutako kupoan egindako deskontuan dute oinarria. 2014tik 2016ra bitarteko urteetako kostua 5 urtetan deskontatzea erabaki zen, eta 2019ko ekitaldiaren itxieran kobratzeke zeuden 2020ko eta 2021eko urtesariak, guztira 171.117 euro; 2020an 77.780 euro kobratu ziren.

Udalak 2019ko GLLen ordainketa osagarria kobratu zuen eta 2020ko diru-sarrera gisa aitortu zuen, guztira 69.505 euroren zenbatekoan.

Udalak 2019ko diru-sarrera gisa erregistratu zituen langabeak kontratatzeke laguntzengatik jasotako kobrantzak, eta emandako zenbatekoa 170.395 euro handiagoa izan zen.

## Inbertsio errealen besterentzea

Hona hemen 2019ko ekitaldian 6. kapituluko diru-sarrerak zein izan diren

Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	Zenbatekoa
Hirigintzako aprobetxamendua UE-ZU-3 Zuatzun .....	1.303
Hirigintzako aprobetxamendua eta kudeaketa gastuak UE-CR-10 La Cruz-en.....	(*) 588
<b>6. KAPITULUA GUZTIRA</b>	<b>1.891</b>

(\*) 2018an ingresatutako 81.007 euroren aprobetxamendu gehigarriak.

## Finantzaketako desbideratzeak

Ondotik, Udalak 2019ko abenduaren 31n Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikina kalkulatzeko baliaitutako finantzaketako desbideratzeak xehakatu dira:

Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	Zenbatekoa
<b>LUOaren kudeaketagatik desbideratz. hasierako saldoa .....</b>	<b>1.432</b>
LUO sarrerak 2019: aprobetxamenduak, hirigin. kuotak eta zehapenak .....	1.278
hirigintza eta etxebizitza atalen gastuak .....	(42)
Udal garajeen mantentze-gastuak .....	(37)
Lurraren erosketan inbertsioa .....	(23)
<b>LUOaren kudeaketagatik desbideratz. azken saldoa .....</b>	<b>2.608</b>
<b>Norbanako baten jarauntsia (2009 sarr. oinord. jasot. higiez. salmenta)..</b>	<b>223</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.831</b>

Data bateko finantzaketa-desbideratzeek finantzaketa lotua duten gastuek sortutakoak jasotzen dituzte; finantzaketa lotua duten gastuak dira diruz lagundutako jarduera gauzatzen ez bada itzuli beharreko diru-sarrerekin finantzatzen direnak. Hirigintzako araudiak ezartzen du LUO kudeatzeko baliabideak babes-etxebizitzak eta urbanizazio-obra eraikitzen bideratuko direla lehentasunez, baina udal-ekipamenduak eta bestelako inbertsioak ere finantza ditzakete, gauzatze-eperik ezarri gabe eta horiek itzultzea aurreikusi gabe. Udalak egindako desbideratzeen kalkuluan, ez dira kontuan hartu kobratu gabeko aprobetxamenduengatik diru-sarrerak (622.913 euro), eta, erabilpenari dagokionez, gastu



arruntetarako eta lursail bat okupatzean sortutako 22.613 euroko inbertsio baterako baliatu dira. Udalak aplikatutako irizpideen arabera, finantzaketako desbideratzeak 2,8 milioi eurorenak ziren 2019ko abenduaren 31n, baina ez dira ondare-kontabilitatean erregistratzen.

## A.5 LANGILEEN GASTUAK

Gastu-kapitulu hau era honetara xehakatzen da:

KONTZEPTUA	Gastua	Euroak milakotan	
		LANPOSTU KOP.	
		LZ	Plantilla 19.12.31
Korporaziokideak (alkatea eta 4 zinegotzi).....	217	-	5
Behin-behineko langileak.....	137	5	4
Funtzionarioak.....	4.922	130	(*) 134
Langile lan kontratudun finkoak .....	594	22	13
Aldi baterako lan-kontratuko langileak .....	821	-	(**) 13
<b>Ordainsarien guztizko partziala .....</b>	<b>6.691</b>	<b>157</b>	<b>169</b>
Gizarte Segurantzari kotizazioak.....	2.076		
Pentsio osagarrietarako ekarpenak: Elkarkidetza .....	91		
Aseguruak eta prestakuntza .....	64		
<b>GUZTIRA .....</b>	<b>8.922</b>		

(\*) Karrerako 73 funtzionario, behin-behineko 42 funtzionario lanpostu hutsa betetzen, programako behin-behineko 14 funtzionario, 1 egitekoak metatzeagatik eta 4 titularraren aldi bateko lanerako ezintasunagatik/lanaldi murrizketagatik.

(\*\*) 4 behin-behineko lanpostu hutsa betetzen, 1 behin-behinekoa aldi bateko lanerako ezintasunagatik, 4 erretiro partzialarekin eta 4 txandakakoak.

Langileen ordainsariak % 2,25 eta % 0,25 gehitu ziren, 2019ko urtarrilaren 1etik eta uztailaren 1etik aurrerako ondorioekin, hurrenez hurren. Gainera, Estatuko Aurrekontuei buruzko Legeak % 0,3ko ordainketa gehigarri ez-finkagarria aurreikusi zuen, eta Udalak langile guztiei produktibitate-osagarri bat ordaintzea onartu zuen, Gardentasunaren eta Administrazio Elektronikoaren Plana ezartzearen ondorioz.

Udalak Gizarte Segurantzaren lanerako ezintasun iragankor kontzeptuko prestazioak osatu zituen eta 2019an 199.994 euroren kostua eragin dute.

Udalaren lan baldintzak arautzen dituen erabakiak alde aurretik erretiroa hartzegatik ordainsarien ordainketa aurreikusten du. 2018an, eskabide bat ordaindu zen eta 3 eskabide atxiki ziren, onartu ondoren ez zela ordaindu behar irizteagatik. 3 langileek 91.270 euro eskatzen dituzte, eta 2020ko apirilean Udalaren aurkako epaia eman zen. Epai horren arabera, dagokion berrikuspen-espeditzea izapidetu ez zenez, Udalak ebazpenak bete eta saria ordaindu behar du. 2018an eta 2019an, beste 5 eskaera egin ziren eta Udalak atzera bota zituen; ez da ebazpen horien aurkako errekurtsorik jarri. Araudiak pizgarri horiek aurreikusten ditu, baina Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programa baten baitan eman behar dira, Udalak onartu gabe duena.



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## Altak

2019ko ekitaldian Udalak honako langile-kontratazio hauek gauzatu ditu:

	Kontratu kopurua
Behin-behinekoak .....	4
Funtzionarioak (trukea) .....	1
Bitarteko funtzionarioak (26 langile) .....	27
Titularra ordeztea aldi baterako ezintasun, lizentzia, baimenengatik etab.....	6
Programa edo egitekoen metatzea .....	10
Lanpostu hutsa betetzea.....	11
Aldi baterako lan kontratupekoak (txandakako kontratua) .....	1
<b>GUZTIRA</b>	<b>33</b>



## A.6 ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN ETA INBERTSIOEN KONTRATAZIOA

Ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioak honako xehakapen hau du:

DESKRIBAPENA	Euroak milakotan	
	Gastua	Konpro- misoa
<b>Garabi-alokairuak eta -zerbitzua</b>	<b>265</b>	<b>-</b>
<b>Konponketak, mantentze-lanak eta zaintza</b>	<b>964</b>	<b>-</b>
Espaloiak, bide publikoak, parkeak eta lorategiak .....	68	-
Eraikinak eta bestelako eraikuntzak .....	133	-
Lekubaso presako uraren hornid.-sistema eta edateko uren araztegia (2018. urteko likid.).....	202	-
Instalazio elektrikoa, kirol-instalazioa, kultura-instalazioa, etab. ....	486	-
Hiri-altzaria, estolderia, uren sarea, argiteria .....	75	-
<b>Bulegoko materiala</b>	<b>67</b>	<b>-</b>
<b>Hornidurak</b>	<b>1.153</b>	<b>140</b>
Energia elektrikoa.....	762	82
Gasa.....	207	58
Ura eta bestelakoen hornidura.....	184	-
<b>Komunikazioak, garraioak eta zergak</b>	<b>159</b>	<b>2</b>
<b>Aseguru primak</b>	<b>106</b>	<b>-</b>
<b>Hainbat gastu</b>	<b>258</b>	<b>1</b>
Publizitatea eta propaganda .....	161	-
Kultur jarduerak eta jaiak, gastu juridikoak, etab. ....	97	1
<b>Kanpoko enpresek egindako lanak</b>	<b>10.899</b>	<b>139</b>
Kale-garbiketa .....	1.895	-
HHS: bilketa (edukiontzia eta pneumatika) eta tratamendua (Garbiker SA).....	1.710	-
Kiroldegien kudeaketa.....	1.395	16
Adinekoentzat etxez etxeko laguntza zerbitzua .....	1.183	-
Udal aretoen garbiketa .....	959	89
Jarduera eszenikoak, festetako artisten kontratazioa.....	898	3
Gune berdeen mantentze-lanak .....	917	-
Ludotekak eta udalekuak.....	350	-
Kaleak eta eremu publikoak konpontzeko zerbitzua .....	342	20
Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta droga-mendekotasuneko esku-hartze zerbitzuak .....	252	2
Diru-bilketa zerbitzuak (Gesmunpal, BBUP eta BFA) .....	183	-
Gaztetxeetako jarduerak eta gazte-lonjen programa.....	162	-
Arreta legala eta psikologikoa tratu txarren kasuetan, berdintasuna sustatzea .....	117	-
Adinekoak dinamizatzeko eta zaintzaileei laguntzeko programak .....	108	-
Beste txiki batzuk .....	428	9
<b>Dietak, mugikortasuna eta lekualdaketak</b>	<b>11</b>	<b>-</b>
<b>29 zinegotzien dietak, organo kolektiboen bileretara joateagatik</b>	<b>111</b>	<b>-</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>13.993</b>	<b>282</b>



